

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

3403

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 8koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, Itziar Bengoa Iturritxa andrea Emakunderen Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren lanpostutik kentzeko dena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 31ko 214/2006 Dekretuaren 17. 2 j) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 103. artikulua eta aplikatu beharreko gainerako arauak ezarritakoari jarraikiz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Itziar Bengoa Iturritxa andrea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkariaren lanpostutik kentzea, egindako lanagatik eskerrak emanez. Lanpostua: 520010 kodea, 114 dotazioa.

Bigarrena.– Kargutik kentzeak 2025eko uztailaren 14tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo honi berari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 8a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.